

Marmari

36. zenbakia / 2024ko abendua

Leizakoa aldizkaria

- Leire Retegi
txistularia
- Jeiki
abesbatzak
50 urte
- Leitzeko
aditzak
- Zaintzaren
beharra
- eta gehiago...

**Musika,
bizitzeko modu bat**



zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena

4-6. or. Leire Retegei txistularia

7-11. or. Akatsak barneratzen eta erabiltzen

12-13. or. Erleta Eskola, ikasle ordezkaria

14-17. or. Leitza Gaizka Leitzaren begietan

18-20. or. Udako solstizioa usadioak Leitzan

21-23. or. Jubilotea txokotik

24-26. or. Jeiki abesbatzak 50 urte

27. or. Zaintzari buruzko hausnarketa

28. or. Zein die Leitzeko zure hitz gustokoenak?



Musika, bizitzeko modu bat

Leitza herri euskalduna eta kirolaria dela sarritan esan izan da. Erantsiko genioke dantzaria eta musikaria ere badela. Hortxe dugu Jeiki abesbatza, 50 urteko ibilbidea osatu duen herriko korua, eta bestetik, Aurrera Dantza Taldea eta txistulariak, herriko kulturari ongi errotutakoak.

Igande arratsaldeetako karrapeko txistularien joaldiek liluratuta hasi zen Leire Retegi txistua ikasten. 22 urte ditu, Goi Mailako Musika ikasketak bukatu berri ditu eta bere bizimodua txistuaren bueltan osatu du, bidean hainbat sari eta errekonozimendu jaso. Zorionak, Leire!

Leirerekin egindako solasaldia ekarri dugu aurtengo Marmarira.

Musikarekin jarraituz, JEIKI abesbatzaren 50. urteurrena ere ekarri nahi izan dugu gogora. Zorionak, zuri ere Jeiki! Mende erdia bete duela baliatuz atzera begira jarri gara, gaur arte egindako bideari erreparatuz: sortu zenetik izan dituen zuzendariak, hasierako 10 bat urte

haitan lehiaketaz lehiaketa ibili ziren garaiak, konpositore klasikoetatik euskal konpositore eta musikarien abestietarako trantsizioa, koru-kideen joan etorria... eta batez ere, kantatzeko izan duten ilusioa, eta nola ilusio hark 50 urtetan aurrera egiteko indarra eman dien. *Musika, bizitzeko modu bat ere badelako*, nola Leirek hala Jeikik azpimarratu diguten bezala.

Herri euskaldun eta euskaltzalea ere badela aipatu dugu, eta euskarari keinu bat eginez, aurtengo Marmarira Leitzeko hizkera eta aditzak ekarri ditugu, Fernando Oiartzunen eskutik. Oker erabiltzen ditugun aditzak, moldeak, hiketan eginez gero nola diren Leitzeko formak... taula eta adibide argigarriak bilatuko dituzue orri hauetan.

Jubiloteakako lagunek urtean zehar sortu eta osatu dituzten eskulanen argazkiak ere jaso ditugu. Astean behin izaten duten saioari etekin handia ateratzen dietela erakutsi digute, lan bikai-

nak eta era askotakoak egin baitituzte.

Bestalde, Erleta eskolak "Ikasleen ordezkaritza" proiektuaren berri eman digu. Helburu nagusia ikasleen parte hartzea areagotzea dela-eta lan horri ekin diote aurtengo ikasturte honetan, ikastetxeko bizikidetzaren planaren baitan.

Aldizkariaren erdialdean, berriz, ohiko atala izanen dugu: herriko argazkiak. Aurtengoak Gazka Leitzak ateratakoak, ihoteetako eta pestetako momentuak jaso ditu, batez ere, baita zenbait musikarirenak ere.

Bada beste gai esanguratsu bat ere, Zaintzarena. Zer motatako zaintza behar dugu? guztiak nahi dugu zainduak izatea, baina nola? zer zerbitzu behar ditu Leitzak zaintzari dagokionez? galdera hauei erantzuna bilatzeko eta herriarren iritzia jakiteko Leitzako Udalak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin batera zaintzari buruzko parte hartze prozesua osatu du. Horren berri ere izanen dugu Marmarin.

Leire Retegi

txistularia



«Txistularia naiz txistuak duen inguruarengatik, haren bueltan dagoen jendartearengatik, eta ematen didan ongizate eta pozagatik»

2021eko
Donostiako
Aste Nagusiko
Txistularien
kontzertuan
bakarlari
lanetan.

Santa Zezilia egunez egin dugu elkarrizketa Leirerekin, musikarien patroiarene egunean, alegia. Hala-beharrak halaxe elkartu gaitu, egun seinlatu honetan, Leirek eta musikak bat egiten duten egunean.

Patxadaz eta goxotasunez hitz egin du elkarrizketan zehar, eta euskara dotorean aritu da bere bizitza kontatuz. Irribarre txiki bat ahoan duela erabat. Esan digu 7 urterekin hasi zela txistua ikasten, Aralar Musika Eskolan. Izena ematerakoan 3 instrumentu aukeratu eta lehentasunen arabera zerrendatu behar omen zituzten. Leirek ordea, denetan “txistua, txistua eta txistua” jarri omen zuen. Hori da ume-umetatik txistuarekiko zaletasuna izatea!

IBILBIDEA ETA SARIAK

7 urteko neskato hark ibilbide oparoa bezain zoragarria egin du geroztik. Musikaren bidean jarraitu nahi zuela garbi zuenez txistuaren bueltan burutu ditu bere ikasketak.

Leitzako Aralar Udal Musika eskolan hasi eta ondoren Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan segitu zuen (gradu amaierako sariarekin), eta 2024ko ekainean Musikenen Goi Mailako Musika ikasketak bukatu zituen.

Gaur egun, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan pianoko espezialitateko Erdi Mailako ikasketak egiten ari da. Aldi berean, Euskal Herriko Unibertsitatean Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterra ikasten dihardu, eta Oiartzunen dagoen Soinueneako Herri Musika Eskolan txistuko irakaslea da. Tolosako Udal Txistulari Bandan ordezkapen bat egiten hasi berria da. Eta, jakina, Leitzako Aurrera dantza taldeko txistularia ere bada. Aspertzeko betarik ez du Leirek!

JASO DITUEN SARIAK:

- Hernaniko Txistulari Gazteen txapelketan 1. saria taldeko modalitatean, 2 urtetan



2018an Euskal Herriko Txistulari Elkartek Miguel Angel Sagasetari urrezko domina eman zion, Urdiaingo plazan.



2019ko Hernaniko Txistulari Gazteen Txapelketako joaldi bat.

- Hernaniko Txistulari Gazteen txapelketan 1. saria bakarka arituz
- 2024an Euskal Herriko Txistulari Gazteen II. txapelketan 1. saria
- 2024an Donostiako Orfeoia-Musikene saria, Musikeneko ikasketa amaierako lanagatik: ‘Leitzako txistularien erreperitorioa, Angel Alduntzin eta Miguel Angel Sagasetaren bidez: interpretaziotik eskuizkribuetara’.

ZERGATIK TXISTUA?

Ez omen da etxetik heldu zaion afizioa, inguruan ez zuelako inor txistua jotzen zuenik. Leitzako karrapen txikitatik ikusi izandako txistularien saioek, dantza taldearen emanaldietako joaldiek... doinu horiek guztiek liluratu zuten umetatik, Leire. Eta hain garbi zuen instrumentu hura ikasi nahi zuela bideari ekin ziola. Eta hasiera hartan, gurasoen bultzada ezinbestekoa izandu zela aitortu digu.



Gradu amaierako lanaren aurkezpenean Leire herriko txistulariekin jotzen.

ZER EMAN DIO TXISTUAK?

Leirek 22 urte ditu gaur egun, eta ia bitzita osoa txistuaren inguruan pasa du. Ibilbide bikaina egin du orain arte, eta atzera begira jarritz eta bereziki, txistuak zer eman dion galdetuta, “ongizate asko, eta poza eman dizkit. Esanen nuke, txistularia naizela, txistuak berak duen inguruarengatik, jendartearengatik, sortzen den giroarengatik... testuinguru osoarengatik, esanen nuke. Eta horrek asko betetzen nau. Oso pribilegiatua sentitzen naiz Leitzako plazan, herriko txistulariekin, jotzeko aukera dudalako. Herri giroan murgiltze bat eman dit horrek, belaunaldi ezberdinetako jendearekin harremantzeko parada, gu ibiltzen garen giroan ez baita hogeitau urte bueltako jendea ibiltzen, eta horretatik ere asko ikasten da”.

Musikari dagokionez berriz, batean eta bestean ikasitakoa hagitz ezberdina da, “herrian ikasi dudana ez dut Iruñeko kontserbatorioan ikasi, eta alderantziz. Akademikoki deus kendu gabe, biak erabat osagarriak eta uztargarriak dira”. Eta berriz azpimarratu du jendearen garrantzia “bai kontserbatorioan zein Musikenen, jendeak mantendu nau, lagunarte horrek. Txistua oso kaleko instrumentua izanik, kale girora eramaten zaitu, mahai bueltara, kalejirara...”

Txistuaren bueltan lagun talde zoragarria duela kontatu du, tokian tokiko

taldea, eta haiekin inguruak ezagutzen joan da, herri bateko eta besteko pesta edo alardeen aitzakian: “izan San Ferminetako alardean edo txupinazoan, Donostiako edo Bilboko Aste Nagusiko festetan, Gasteizko Andre Maria Zuria- ren jaietan, Leitzeko Santiburtziotan edo Aurtizko festetako diana jotzean. Guztietan gozatu dut, eta herri edo hiri ezberdinak izanagatik ere, guztiek eman didate zerbait, batetik eta bestetik jasotzen noa, eta banoa nire izatea osatzen. Ez txistulari bezala bakarrik, baita pertsonalki ere, ni Leire bezala osatzen eta aberasten. Eta txistuak hori eman dit, eta poz asko ere bai, esan bezala. Nire egunerokoan parte esanguratsu bat da. Azken batean, bizitzeko modu bat eman dit”.

GRADU AMAIERAKO LANA LEITZAKO TXISTULARIEI BURUZ

‘Leitzako txistularien errepertorioa, Angel Alduntzin eta Miguel Angel Sagasetaren bidez: interpretaziotik eskuizkribuetara’ izeneko lana burutu du. Guztira 236 doinu bildu ditu hainbat eskuizkributan, eta gehien gehienak fandangoak, arin-arinak eta biribilketak dira. Baita Leitzako ingurutxoak, Ezpatadantza eta gabon kanta batzuk ere. Horien guztien katalogazio bat egin du orain Leirek, eta etorkizunean eskuizkribu hauek argitaratzea litzateke asmoa.

Bere lanaren helburuetako bat Lei-

tzako txistulariek egindako bidea eza-gutaraztea izan da, “Angel Alduntzin, bere garaiko txistularirik ospetsuena, eta Migel Angel Sagasetaren errepertorioan oinarrituta. Nire ikerketaren bidez, Leitzako herriarren eta bertako txistularien artean eraiki den batasuna ezagutu ahal izan dut. Melodia batzuk belau-naldiz belaunaldi igaro dira eta gaur egunera arte iritsi dira”. Behin lana osatuta herriari aurkeztu nahi izan zion Leirek, eta halaxe egin zuen aurkezpena, jendez gainezka zegoen Batzar Aretoan. “Oso pozgarria izandu zen, eta aberasgarria, agertu zen jendearengatik: giro eta adin desberdinetako jende asko etorri baitzen, eta bakoitzak ikuspuntu desberdinetatik jaso izan zuen nik kontatutakoa, balitekeelako entzuleen artean bakarren bat izatea Angel Alduntzini buruz sekula deus entzun gabea, eta aldiz, besteren bat hura ezagututakoa izatea... Zentzu horretan oso aberasgarria izandu zen.

Lan honek segida ere izan du, azaroan saria jaso zuelako: *Donostiako Orfeoia-Musikene saria* hain zuzen ere. “Gure aurrekoek egindako lanaren aitortza gisa jaso dut sari hau” dio Leirek eta beraz, are gusturago jaso duela azpimarratu du. Merezitako errekonozimendua 22 urteko txistulari gazteak orain arte egindako ibilbide bikainarengatik.

Akatsak barneratzen eta erabiltzen hasten garenean...”

“Hii, Mikel. Atzo atsalden ikusi nien plazan”.

“Bai zea! Zesatezo? Nik ez nizun ba, ikusi”.

Hizketan ari garenean hanka sartzea oso gauza arrunta da eta guztiok egiten dugu noiz edo noiz. Guzoi gertatzen zaigu gauza bat adierazi nahi izatea, eta gaizki esatea. Hori ahozkoan, hizketan, gauzarik naturalena da. Nori ez zaio hori gertatzen?

Besterik da, ordea, aldiro edo uneoro gaizki aritzea, akatsak egitea eta trakeski mintzatzea. Horrela ariz gero, gure esanak indarra galtzen du, eta itsustu egiten da gure jolasa. Gainera, batzuetan guk gerok nahi dugulako egiten dugu hizketa zabartxeagoa, baina beste batzuetan gertatzen da, eta gero eta maizago, hizketa okerturik eta pobreturik daukagula.

Gure hizkuntza, euskara, hizkuntza gutxitua izanik, egoera soziolinguistikoa zailean egonda, hiztunok okerka egitea normalizat jo genezake. Eta egia esanda, orokorrean, gero eta okerrago egiten dugu euskararen lurralde guzietan, nahiz eta gurea bezalako eskualdeetan indartsu eusten diogun egiteari. Pobretze orokor horren arrazoiak ez ditugu aztertuko orain, ez baita hori gure lan honen helburua. Baina hor dugun arazo orokorra da.

Esanak esan, guk hemen dugun egoera oso ona da, Leitza eta ingurumarian. Argi dago gure hizkuntzak aurrerapauso asko eman dituela normalizazio bidean. Ondorioz, gure herrian, nahi duenak betiere, egokiera bikaina du euskaraz aritzeko ia-ia nonahi eta noiznahi. Zorionekoak gu euskaraz bizi gaitezkeela!

Hala eta guziz ere, hemen bertan ere hizketa zabartzen ari zaigulakoan gau-

de, eta geure hizketako gaitasuna aberastearren, azken aldian atentzio deitu digun akats zehatz bati erreparatuko diogu eta konponbidea eman: Arazoa edo akatsa da nor-nork aditzaren erabileraren okertze orokorra; alegia, nor-nork aditzak gaizki erabiltzea (*haik ezautzen ziguen* esatea, *haik ezautzen giñuzen* beharrean; edo *nik atzo ikusi nizun zu-atzo ikusi ziñuzen zu* esan beharrean; edo *amak eramanen diu amak eramanen gatto* beharrean). Konponbidea, berriz, arrunt erraza: hiztun zaharagoengan arreta paratu eta haien eredu hartzea gure hizketa zuzendu eta aberasteko. Hala egin dugu guk nor-nork adizkiak direla eta, eta idazlan honetan azalduko dizugu jakinduria handiko hiztunek erakutsia.

Edozein moduz, gure arreta erakarri duen akats linguistikoa hori ez da oraingo kontua. Duela 40 bat urte edo, gaxteak ginela, oso normala zen guk aditz horiek gaizki esatea eta jende helduak, etxekoek edo auzokoren batek zuzentzea. Gogoan daukagu oraindik Kandi Tolatxenekoak nola esan zigun behin guk esaldi bat gaizki esanda: *Ikusi dizot esan dok? Nola ba! Hori ez dok hola. Ikusi zattot esatek hemen*. Gaur egun, berriz, akats horiek zabaltzen ari zaizkigu bai gazteengan, bai helduengan. Eta orokortzen ari dira. Hala bada, gaizki esanagatik asko ez dira ohartu ere egiten gaizki esaten dutenik.

Aurrera egin dezagun, bada, eta gaurkoan nor-nork aditzen taulak paratuko dizkizugu hemen zaharren ahotan bilduak; haiei galdetu baitiegu horiek nola esaten dituzten. Ondoren, argibide

batzuk eta hiztunek emandako adibide batzuk paratu ditugu, eredu on bat izan dezagun guziok.

Ikus ditzagun, beraz, aditz taulak nor-nork aditzenak: nor-nork zuketan orain eta lehen, eta nor-nork hiketan, noka edo neskekiko erregistroan eta toka edo mutilekiko moldean.

Lehenik, ohar batzuk dauzkazu aldaerez edo esateko era desberdinez. Gero, aditz taulak Leitza euskararen eta batuan. Eta azkenik, ahoz bildutako adibideak, hiztunek esan bezalaxe, erabilera zuzen eta egokia zein den ikus dezagun.

OHAR OROKORRA ALDAEREZ

Aditzak esateko aldaerak edo esateko era desberdinak dauzkagu, Leitza bertan ere, ahoz ari garenean, normala den bezala. Denak ere baliagarriak eta zuzenak. Bi sailetan banatu ditugu guk aldaera horiek:

- Aldaera nabarmena: aditza esateko bi modu desberdin samar; *amak oso matte ninddun* edo *amak oso matte negoan*, konparazio baterako. Hori jaso dugunean, biak paratu ditugu tauletan, berdin balio baitute, zuzenak badira.
- Aldaera txikia: bokal baten edo kontsonante baten gorabehera adizki berean: *zuk eaman ninddusun* edo *ninddozon*, konparazio baterako. Halakoe-tan guk bakarra paratu dugu, eta taula bukaeran aldaera horiek bildu ditugu. Bestalde, batzuetan, traba egiten ez duela iruditu zaigunean, parentesi artean paratu dugu erantsi beharreko bokal edo kontsonantea: *guk ekarriko zattue(u) zuuk*. Eta bestela, behean aldaeretan biak edo diren guziak paratu ditugu: *nauea, nabea, naudea*.

Gogoan izan aldaera gehiago ere izan badirela, baina txikiak, oro har.

ADITZ TAULAK

ZUKETAN		NOR-NORK, orainaldia					
Nor	Nork	Nik	Zuk	Zuek	Hark	Guk	Haiek
Ni	Leitzen		nazo	nazue	nao		nauea
	Batuan		nauzu	nauzue	nau		naute
Hu(r)e	Leitzen	dot	dozo	duzue	do	du	due
Hura	Batuan	dut	duzu	duzue	du	dugu	dute
Gu	Leitzen		gattozo	gattuzue	gatto		gattue
	Batuan		gaituzu	gaituzue	gaitu		gaituzte
Zu	Leitzen	zattot			zatto	zattu(u)	zattue
	Batuan	zaitut			zaitu	zaitugu	zaituzte
Zuuk	Leitzen	zattuet			zattue	zattue(u)	zattue
Zuek	Batuan	zaituztet				zaituztegu	zaituztete
Haiek	Leitzen	dittot	dittozo	dittuzue	ditto	dittu	dittue
Ha(i)k	Batuan	ditut	dituzu	dituzue	ditu	ditugu	dituzte

***Aldaerak:** haiek ni *ekarri nauea* edo *naudea* edo *nabea*. Guk hura; *du* edo *duu*. Guk zu: *zattu* edo *zattu*. Guk zuek; *zattue* edo *zattueu*.

Ahoz bildutako adibideak:

- Aizu, Pako. Zuk eaman giñuzun gu lehengoan Tolosaa. Ta gaur e zuk eamatten nahi duu, libre baldin badaukezo taxie. Ta eamanen al **gattozo** atsalden Tolosaa?
- “Aizu, barkatu: Zu zeñetakoa za ba? **Ezattot** nik izautzen”. “Miel, ez al **nazo** ba ni izautzen? Ni Margarin alaba naiz”. “Aa. Arraioanea! Zure atte ta ama ta asko izautzeittot nik.

*Eta haik e izautzen **naudea** ni. Baño zu ez. Badakizo, gu uan ez baika iñora yoaten, da ezin izautu gazte yendea. Gaztek zuuk izautzen **gattuzue** gu. Baño guk zuuk ez **zattue** izautzen. Gu herrire uan ez ga yoaten eta. Ezin izautu. Gaztek zaharrak errexago izautzen **baitittue** zaharrak gaztek baño”.*

- Auzokoak hizketan herrire joateaz baserritik: “Aizu, Joxe. Zuk eratsiko al **gattozo** herrire? Gaur e eamatten **bagattozo**, pozik izanen ga”. “Bai, bai. Nik eamanen **zattuet**”. “Bai, lehengoan e zuk eratsi giñuzen da”. “Bai, bai. Lasai, ta gaña mandatuk itteittuzuenen esan, nik io re iñen **zattuet** etxera”.

*Eratsi: jaitsarazi. Goitik behera jaistea.

ZUKETAN		NOR-NORK, iraganaldia					
Nor	Nork	Nik	Zuk	Zuek	Hark	Guk	Haiek
Ni	Leitzen		nindduzun	nindduzen	ninddun negoan		ninddun neuden
	Batuan		ninduzun	ninduzuen	ninduen		ninduten
Hu(r)e	Leitzen	nun	ziñun	ziñuen	zun	giñun	zuen
Hura	Batuan	nuen	zenuen	zenuten	zuen	genuen	zuten
Gu	Leitzen		giñuzen	giñuzen	giñuzen		giñuze(a)n
	Batuan		gintuzun	gintuzuen	gintuen		gintuzten
Zu	Leitzen	ziñuzen			ziñuzen	ziñuze(u)n	ziñuzen
	Batuan	zintudan			zintuen	zintugun	zintuzten
Zuuk	Leitzen	ziñuze(a)n			ziñuze(a)n	ziñuze(u)n	ziñuze(a)n
Zuek	Batuan	zintuztedan			zintuzten	zintuztegun	zintuzteten
Ha(i)k	Leitzen	nittun	ziñuzen	ziñuzean	zittun	giñuzen	zittuen
Haiek	Batuan	nituen	zenituen	zenituzten	zituen	genituen	zituzten

***Aldaerak:** Zuk ni *nindduzun* edo *ninddozon*. *Giñuzen* edo *ziñuzen*, kasu guzietan, *giñozen* edo *ziñuzen* ere erabiltzen dira. Zuk gu *giñuzen* edo *giñuzun*; zuek gu *giñuzen* edo *giñuzuen*.

Ahoz bildutako adibideak auto oso gutxi izaten zela garai batean, eta baserrietan bizi zirenak elkarri lagunduz eta ibiltzen zirela herrira edo medikutara edo joan behar zutenean. Eta beste batzuk berriz oinez joan behar herrira erosketetara eta:

- “Aizu, lehengoan e zuk *eratsi ninddozon* ni herrire, kontxen hartu te herrire eaman. Eta bentaja earra in ziñen. Nik ez baitot gañekoan yoateko moduik”. “Ba, hurrengoan e bada-kizo, esan suolto, ta nik eamanen zattot, lehengoan eaman *ziñuzen* bezala. Nik uain ez baitot lan haundik”.
- Bai, hori egie da. Ni izaten nitzen etxeko mandatugilea. Ta ni bialtzen *nindduen* gurasoak eunero obiketa ta. Ta eunero herrire etorri behar oñez baserritik. Askotan amak bialtzen *ninddun*, hark eamatten zun da, baserriko martxa. Baño at-

tek e bai, tabakoa eo falta zunen, attek e bialtzen *ninddun*.

- Bai, zuk eaman *giñuzen* (*giñuzun*) gu, hemendik hartu te, herrire. Ta beste baten baita herritik ekarri re, zuk in *giñuzen*.
- Zuuk eaman *giñuzen* gu Iruñea medikutea, ta gero medikutako aldie in arten hantxe espeatu ziñuen. Da, ekarri re bai, zuuk in *giñuzuen* etxea, honea Leitzea.
- Hara, hara, Teresita! Alazankoa! Guk *erazo ziñuzen* zu hemen baserrin ttikitten. Eta bedea uan ze neskatxe in zan!
- Hok gaixoak iñez erabiltzen *giñuzen* gu atten lehengusu Fraxkuk. Ikeragarri matte izaten *giñuzen*. Ta baserrire etortzen zen, eta gu beti lanen ikusten *giñuzen*. Eta ordun hark: hok, hok, gaixoak!

***Eratsi:** jaitsarazi. Goitik behera jaistea.

***Erazo:** zaindu edo kuidatu. Behar dituen gauzak eta zainketa eman.

HIKETAN		NOR-NORK, orainaldia					
Nor	Nork	no-to	Nik	Hik	Hark	Guk	Ha(i)k / Haiek
ni	Leitzan	no		nan	neon		neonea
		to		nak	neok		neokea
	Batuan	no		naun	naik		naiten
		to		nauk	nain		naitek
hi	Leitzan	no-to	hat		hao	hau(u)	hauea *
	Batuan	no-to	haut		hau	haugu	haute
hu(r)e	Leitzan	no	diñet	don	din	diñu	diñea
		to	dit	dok	dik	diu	die *
hura	Batuan	no	dinat		din	dinagu	diten
		to	diat		dik	diagu	ditek
gu	Leitzan	no		gaton	geuden gittion *		geudenea gittionea
		to		gattok	geudek * gittiok		geudekea gittiokea
	Batuan	no		gaitun	gaitin		gaitizten
		to		gaituk	gaitik		gaitiztek
ha(i)k	Leitzan	no	zetiñet	ditton	zetin	zetiñu	zetiñea
		to	zetit	dittok	zetik	zetiu	zetie *
haiek	Batuan	no	ditinat	ditun	ditin	ditinagu	ditizten
		to	ditiat	dituk	ditik	ditinagu	ditiztek

***Aldaerak:** *hauea* edo *habea* edo *haudea*; *die* edo *dikea*; *geuden* edo *geoden*, *geudek* edo *geoden*; *zetie* edo *zetikea*.

Bestalde, tauletan gu pertsonari dagozkion adizkietan bi aldaera paratu ditugu nahiko desberdinak direlako, eta biak erabiltzen direlako gure herrian: *hark* gu izautzen “*gittiok*” edo “*geudek*”; *haik* eaman “*geudenea*” edo “*gittionea*” herrire.

Ahoz bildutako adibideak ezagutzeaz eta herritarrek elkar ezagutzeaz, lanera elkarrekin joateaz eta lanean hartzeaz:

- Nik Jorge hori izautzen *dit* eta horrek e izautzen *neok* ni. Lehenao re ezautzen negoan horrek ni. Ta nik e bai hori. Baita horren amona zena re izautu nien, oso emakome ona huen gaña. Ta hori tte horren familikoak denak e izautzen *zetiu* guk. Eta horik e gu izautzen *gittiokea* gu. Ez dok ikus-

ten motikoak ziela re hemen izaten ziela horik. Eta hala aspaldin izautzen **zeti**u guk. Bai, eta horik gu re bai, lehen-diken izautzen giñeuden gu horik, zergatiken, motiko kozkor-ratan beti hemen izaten baitzien.

- “Joxek kausoik ez hiri? Ba hi izautze **hao** horrek aspaldi hontatik”. “Ba etzekit. Etzeidek kausoik itten da”. Ba horrek lehenao re izautzen hegoan hi. Hemen gue etxen da eotten huen da”. “Bai, bai, banekien izautzen ninddula. Baño sekoka dok oso”.
- “Hoi egie dok, Fernando. Guk uain izautzen **hauu** hi, eta amistadea ikaragarrie **diu** gaña. Baño lehenao, parientek izanagatiken, guk ez hindduen ezautzen. Hi kanpoan izaten hitzen da. Ez dok ikusten, holako tratoik ezen, guk ezin izautu. Baserrin izaten gattok gu, ta herrie uan ez baika joaten! Ta uan ibiltzeko egokierak zeudek, baño guk ibilli behar bagiñun, oñez...
- Ioteritan honea 70 laun eta hola etortzeitton. Ta haik gaztek gu izautzen **geudenea**, zaharragoak galako. Baño guk haik ez baitittu izautzen, gazterie, iñola re. Ta galdezka denari ezin hasi ba! Baño bakarren batek edo bestek esaten badue, ordun bai, hain familikoak eta izautu.

– Aizan, aizan. Lehengoan hik eaman nindduen ni lanea. Ta aste hontan eamanen **hat** nik. Gañekoan bi kotxe erabilli behar **zetiñu**, ta bi kotxek bi gastu **zetiñea**. Ta kotxe baten bik yoan gattezken, earki. Ta txandan hola ongi moldatu ezkeo, mesedea bintzat.

- Aizak, hi. Lantokie bik hortxe **diu** Lekunberrin, berta samarrren gaña. Ta aste baten nik eamanen **hat** hi, ta hurrengo asten hik eamanen **nak** ni. Ta, harta, bi kotxe eaman beharren, batekin itten **diu**. Eta batekin moldatzen baldin бага, gastun erdie dok. Bi launek kotxe bana, zertako?
- Lanen ez hartzen hi? Hara. Ez **hauea** lanen hartzen, izautzen ez **hauelako**. Baño hi langillea haiz te izautuko bahinddue, lanen nonahi hartuko heokea. Lasai, hartuko **hauea** ta abudo. Ta gu re fabrikeko enkargatuk izautuko bagiñoz nolakoak gan, hartuko giñiok. Baño fabrikeko horik gu ez **gittiokea** izautzen, da horretxengatik ez **gittiokea** hartzen. Baño, gañekoan hartuko giñiokea. Dudik ez izan.
- Aizan, hi. Hi lanea Iruñea yoate haiz, ezta? Ba gu bihar Iruñea yoan beharrak gattton, da hik eamanen al **gattton**?”. “Bai, bai. Ni re yoan beharra nan eta eamanen zattueta. Ni eunero yoaten bainaiz”. “Hoi don. Eta guk gasolle patukoiñu. Denak e irabazin ateatzeko”.

HIKETAN		NOR-NORK, iraganaldia					
Nor	Nork	no-to	Nik	Hik	Hark	Guk	Ha(i)k / Haiek
ni	Leitzan	no		ninddunen*	neonen		neonen
		to		nindduen	ne(ng)oa		neuden ne(ng)oa
	Batuan	no		nindunan	nindinan		ninditenan
		to		ninduan	nindian		ninditean
hi	Leitzan	no-to	hindduen		he(ng)oa hindduen	hindduen	heuden he(ng)oa
	Batuan	no-to	hindudan		hinduen	hindugun	hinduten
hu(r)e	Leitzan	no	ni(ñ)enen	huen *	zi(ñ)enen	giñenen	zi(ñ)enen
		to	nien		zien	giñien	zien *
hura	Batuan	no	ninan	huen	zinan	geninan	zitenan
		to	nian		zian	genian	zitean
gu	Leitzan	no		giñuzenen *	geundenen giñuzenen		geundenen giñuzenen
		to		giñuzen *	giñeuden *		giñeuden *
	Batuan	no		gintunan	gintinan		gintiztenan
		to		gintuan	gintian		gintiztean
ha(i)k	Leitzan	no	neti(ñ)enen	hittuen hittunen	zeti(ñ)enen	giñizenen giñetiñenen	zeti(ñ)enen
		to	netien	hittuen *	zetien	giñizen giñetien	zetien *
haiek	Batuan	no	nitinan	hituen	zitinan	genitinan	zitiztenan
		to	nitian		zitian	genitian	zitiztean

***Aldaerak.** Hik ni: *ninddunen* edo *niunen*. Hark hura: *zien* edo *zikean*. Hik gu; *giñuzenen* edo *giñozenen*, *giñuzen* edo *giñozen*. Hark gu edo haiek gu; *giñeuden* edo *geunden*. Haiek hi: *heuden*, *hengoan* edo *hindduen*. Haiek haiek; *zetien* edo *zetikean*.

Bestalde, *hi* pertsonari dagozkion *huen* eta *hittuen* erabiltzen dituzte adin handikoek aldaerarik gabe, neskekin nahiz mutilekin. Gazteagoek berriz neskei zuzentzeko *hunuen* eta *hittunuen* ere erabiltzen dituzte.

Ahoz bildutako adibideak gai desberdinei buruz:

- Hii, hik ekusi *ninddunen* ni, eta nik ordun kauso in *nienen*, baño hik ez, ez hiden kausoik in. Here martxa eaman *huen*, baño hoi ez don hola izaten. Yendek kauso itteñinen, hik e kauso in. Ta nik ekusi *hindduen* hi, ta hi gorde in hitzen: pekatun hebillen eta.
- Azaroan 22e *huen*, da amona zena hil *huen* da, eurie botatzen *zien* goien zena behera. Ta attek bialdu *negoan* erlei abisoa ematea Leitzelarre, bela koxkor batekin eta poxpoloakin. Holaxe izaten *huen* orduko ohittera, esan itten zitzeioan erleri etxeko bat hiltzen zenen, harentzat kandela itteko ta.
- Behin gurasoak bialdu *neonen* mandatuta, ta attek tabakoa falta zula, ta eamattoko. Hala, hure esperoan. Da zer da ta, nei ahaztu atten tabakoa, ta etorri nan nire mandatukin. Eta attek galdetu zeidenen: “tabakoa ekarri al dien?” “Ez! Mekasuen! Ahaztu in zat”. Ta amak ordun: “Yoan beharkon berri. In tzan han da hemen”. Eta lasterrai eman, da berri herrire etorri behar izandu nienen atten tabakoan bille. Ainenen Seastianek eman zeidenen: “No, no, attentzako tabakoa.”
- Mandatuta ni bialtzen *neuden* etxekoak gehienetan, eta, obie ta behar *zienak* paperen patu. Ta nik ekartzen *netien* mandatuk etxera. Batzutan eskolatik atera, ta pardel-pañulo nabarra izaten *nien* aproposa, ta obik hartu bizkarren da, korapilatu hemen aurren, da obik bizkarren nittula, etxeea...
- Matte *hengoan* attek hi, baño hik ez *huen* etxen lanik in nahi ta, laneako gogorik ez *huen* da, baño gañekoan laneako gogo haundie izan baldin baiho, hementxe izanen hitzen. Ta hik ez don usteko, baño hi matte *heuden* etxeko guzik. Baño

heorri pardel samarra atea hitzen da. Here burue heorrek galdu huen. Yakiñe. Guk denak matte hindduen hi. Baño denak aztarrike ta hi alperkerin? Ez haiz behar bezala portatu.

- Mending lañoakin, argi! Behin Aritz mendin, belarren atte ta bik, segan. Ta han lañoa beltza izatek, eta lañoa sartu, te elkar ikusten ez giñula lañoakin. Deus ikusten ez ta, iñalak inde ez giñuzen bereixten. Nahastu giñuzen, da han bueltaka. Ta buelta ta buelta ta. Gu zer gabiltze? Non gabiltze gu? Ez gebiltzek natural! Ta, Joxemari auzoa han tokatu, etxea zila. Ta hartxek salbatu *giñeuden*. Gañekoan ez giñuzen berexiko.
- Ioteritako kontu politte badiñet hiri esateko: gu etxea giñezenen. Da Kandaletxen atsauretuk, zomorroak gure esperoan. Da letxeroa tokatu zitziunen, Lekunberrriko Inazio. Ta hark eaman *geundenen* kamionen, hartu te etxera. Bazekiñenen hark gu nola giñebiltzen. Da motillek hantxe geldittu hittuen, aba bete hortzekin.
- Behin yo *neonen* ni attek. Baño neonek *netienen* kulpek, siesta ittea galazi niolako. Baño haundixegoa izan banitz, *eneonen* harrapatuko. Eskapatuko neonen.
- Gurasoak gu matte izaten *geundenen*, eta horreatik itten zeipun goor, gu aurea ateatzeta nahi zuelako. Gañekoan auskalo nolakoak ateako ginen.
- Aizan, lehengo asten hik eaman *giñuzenen* gu Lekunberrire. Ta uain, aste hontan, guk eamanen hau hi. Ta baten batek eta besten bestek, hola ibilliko gatton txandan. Da hola mol-datuko gatton. Gañekoan ez baititteke. Hiru laun yoan behar da, beren kotxekin, banatan. Gastuk baitton hor.
- Ordun zaharrak denak etxen *erazotzen* hittuen. Guk hala *erazo giñizen* hemen etxeko zaharrak: ama zena ta atte zena, ta attuna ta amona re bai, osaba “attuna zaharra” esaten giñiona re bai. Tte denak hementxe, hil arte. Eta kanposantun entregatu. Nik nere gogoan. Eta hemen auzoan etxe guzitan e berdin. Zaharrak etxen *erazo*. Etxek berak *erazotzen* zetien zaharrak.

**Erazo:* zaindu edo kuidatu. Behar dituen gauzak eta zainketa eman.

AMAIERA

Honez gero, ohartuko zinen artikuluhonen izenburua gaizki zegoela eta nola zuzendu behar den, ezta? Guri herriko hiztun trebeek erakutsi digutenez, bi modutara eman genezake izenburu hori era zuzenean: Hiketan, hala hasia

dagoelako elkarrizketa; edo zuketan, zuka hasiz gero, hala segitu behar delako. Honatx biak ala biak:

“Hii, Mikel. Atzo atsalden ikusi hindduen plazan”. “Bai zea! Zesaten, Maddi? Nik ez hindduen ba hi ikusi”.

“Aizu, Mikel. Atzo atsalden ikusi ziñuzen plazan”. “Bai zea! Zesatezo, Maddi? Nik ez ziñuzen ba zu ikusi”.

Mila esker adin handi samarreko hiztun prestu eta jakintsu guziei guri hizkera txukun eta aberatsa erakusteagatik.

Fernando Oiartzun



Erleta Eskola

ikasle ordezkaritza

Erleta Eskolako hezkuntza proiektuan zehazten den bezalaxe, ikaslea da gure ardatza. Ekimen honen helburua Erleta Eskolako ikasleek beraien eskola bizitzako erabakietan duten parte hartzea areagotzea da. Arrazoi bakarra ez da ikaslea bera ardatza dugula; ikastetxe mailan ditugun Bizikidetzaren planean nahiz Hezikidetzaren Nortasun Pla-

nean ere proiektu hau bideratzearen ideia jasotzen baita. Bertako itemetako bat, parte hartzea da eta parte hartze horren barnean sartzen da ikasleen ahotsa entzutea eta beraien eskola bizitzako zenbait erabakitan parte hartzea.

IKASLEEN ORDEZKARITZA proiektu honen helburu nagusia beraz, ikasleen parte hartzea areagotzea da eta

lan horri ekin diogu aurtengo ikasturte honetan.

Bi hitzetan asmoa zein den azalduko dugu. Gela bakoitzeko ordezkariak noizbehinka zuzendaritzarekin elkartuko dira gai ezberdinen inguruan hitz egiteko. Elkartze horietan, ikasleen artean dauden egonezinak, kezak, proposamenak, eta abar. jasoko dira eta hauei



irtenbide bat ematen ahaleginduko dira ikasleak, zuzendaritza taldearen laguntzarekin.

Bizikidetza planaren helburua, ikastetxeko giroa hobetzea da eta proiektu honen bidez ere hori lortu daitekeela uste dugu. Izan ere, bilkuretan elkarren arteko harremanak sendotu eta eskola komunitate osoaren elkarlana, komunikazioa, konfiantza eta kohesioa sustatzen baitira.

Bilkura hauek egitea eskolako elkarbizitzan tresna egokia izan daitekeela iruditzen zaigu; izan ere, ikasleei eragiten dioten gai edo arazoak parte hartze demokratikoaren ikuspegitik lantzeko



aukera eskaintzen du eta ikasleak beraiek izanen direnez arazo edo egoera hauei konponbidea bilatuko dietenak, beraien erabakiak errespetatzeko aukera besteei inposaturikoa errespetatzeko baina handiago izanen da.

Bertan, pertsona bakoitzak askatasunez adieraz ditzake iritziak, ideiak, desioak, proposamenak, eta erabakiak demokratikoki, adostasunez edo bozketaz hartuko dira. Baina aldi berean, bertan parte hartzen dutenek argi izan behar dute beraien gelakideen iritzia ere ordezkatu behar dutela. Horregatik, oso garrantzitsua izanen da bilkura horietan landuko diren gaiak aurrez ikasgelan gainontzeko ikaskideekin ere lantzea. Pentsatzen dugu bilkura hauek lagundu dezaketela ikastetxeko giroa hobetzen, ikasleen arte bizikidetza harremanak sendotzen eta eskola izaera sortzen eta indartzen.

Horretaz guztiaz gain, gainera, proiektu honek LOMLOEk (hezkutza alorrean egun dagoen legediak) ezartzen dizkigun kompetentzien garapena ere

ahalbidetzen duela iruditzen zaigu. Hain zuzen ere, honako kompetentzia hauek lantzen dira zuzenki: kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa; herritar kompetentzia eta ekimenerako kompetentzia. Kompetentzi hauek eta gainerakoek garapena ahalbidetzeko ez dago hauek praktikan jartzea baino ikas-kuntza esanguratsuagorik, eta proiektu honek hori eskaintzen diegu, beraien nahiak, egonezinak, kezak, proposamenak,... mahai gainean jartzea, eztabaidatzea, adostea eta hori aurrera eramatea, heldua bidelagun duela, beraiek protagonista nagusitzat hartuz eta helduak beraien bide hori ikuskatuz.

Azken ikasturte hauetan, hezkuntzak hartu duen norabide ezberdina azalduz jartzen dugu gure aletxo aldizkari honetan eta hau norabide berri horretan murgiltzen den beste proiektuetako bat da. Norabide horretan eta ikasleak ardatz harturik jarraituko dugu gure egunerokotasuneko jardunean ilusioz, pausu txikiak emanez baina beti ere aurreraka doan norabidean.

Leitza

Gaizka Leitzaren begietan

Hona hemen Marmariko aurtengo argazki saila. Atal honetan, sarritan, gure herriko bazterrak, txokoak, edo mendi inguruak izaten dira protagonista, oraingoan ordea, kaleko momentuak ekarri ditu Gaizka Leitza Alduntzinek. Aurten ateratako irudiak dira, gainera, txuri-beltzean emanak eta begirada propio batetik atereak: ihoteak, musikariak eta etxebizitza ataria dira sorta honetako oinarri. Argazki gehiago ikusi nahi badituzue sartu Gaizkaren Instagram kontuan: [@gaizkillea_](#) eta gozatu!



2024ko ihotek, igande eguerdia.



2024ko ihotek, igande eguerdia.



2024ko ihotek, atsauren kalejira.





Manuel Lasarte 1.



Leitzeko pestak 2024.





Atekabeltz gaztetxea teknopunk gaua palestinaren alde 2024.



Atekabeltz gaztetxea teknopunk gaua palestinaren alde 2024.



2024an EHko gaztetxe topaketak Atekabeltzen, Naxker taldea.



2024an EHko gaztetxe topaketak Atekabeltzen, Las Sexpeares taldea.



Udako solstizioa,
San Juan sua
Leitzako plazan.

Udako solstizioko usadioak Leitzan:

suak, gurutzeak eta belar-onak San Joanetan

Eguzkia gurtzeko ospakizunak eta erritualak ohikoak izan dira munduko zibilizazio guzietan antzinatek (Egipto, Grezia, Ameriketako inkak, maiak...). Gure kulturen ere jai eta ospakizun bereziak egiten ziren Eguzkiaren inguruan, hura gurtzeko, indartzeko edota miresmena adierazteko. Ospakizun horiek solstizio-egunetan egiten ziren, batez ere neguko solstizio-egunean edo Orantzaro-egunean eta udako solstizio-egunean edo San Joan egunaren inguruan. Egun horietako ospakizunetan sua izaten zen elementurik garrantzitsuena, eta nabarmentzekoa zen, bestal-

de, arbasoek naturarekiko zuten jarrera, errespetuz jokatzeko baitzuten ama-lurrarekin.

Leitzan bertan, ongi dakigun bezala, neguko solstizioaren inguruan Orantzaro-ospakizunak ohikoak izan dira, eta dira gaur egun ere, bizirik baitiraute. Horri buruz gainera lan handia egin da azkeneko urteotan, eta gure usadio zaharrak ezagutzeko eta indartzeko parada izan dugu. Besteak beste, honako hauek bizirik ditugu egundaino: su-berria egiteko ohitura zaharra, panpin desberdinak paratzeko tradizioa sexu bereizketarik gabe, Orantzarotan arropa edo zer bait

berria estreinatzeko usadioa... Horretaz gain, abenduaren 24an, neguko ospakizun hori plazan irudikatzen da Orantzaroaren etorrerarekin.

Udako solstizioa dela eta, baditugu usadio zahar batzuk horren eguneraturik edo landurik ez ditugunak. Guk behinik behin horiei ez diegu arreta sakonik paratu orain arte. Eta gaurkoan horiek lehenetsi nahi ditugu eta hona ekarri, gure sinesmen zaharretan gehixeago murgiltzeko. Baserri munduko jendeari galdetuta (Barun, Tutenea, Sorobarren...) bildu dugu informazioa, baserriarrek egundaino ere eutsi baitiete lehengo ohi-

tura zaharrei. Gauza jakina da San Joan bezperako sua denok ezagutzen dugula eta bizitu dugula, baina gauza gehiago ere erakutsi dizkigute gure herriko jakintsuek. Hona zein ohitura erakutsi dizkiguten gaurko idatzia osatzeko: San Joan bezperako suak, oin hutsean ibiltzeko ohitura, San Joan belarrak biltzeko usadioa eta San Joanetako gurutzeak. Horietan elementu paganoak eta erlijioak nahasten dira, sinesmen zaharretan gertatu ohi den bezala Euskal Herrian aspalditxo.

SAN JOAN BEZPERAKO SUAK ETA OIN HUTSEAN IBILTZEKO USADIOA

Arestian aipatu bezala, denok ere ezagutzen dugu San Joan bezperako suaren ohitura herrian. Baina sakon dezagun pixka bat horretan. Ikus dezagun baserri munduan nola egin izan duten su hori, Miel Sukuntzaren ahotan:

Baserrian bakoitzek bere sue itten zien, illunabartzen tzunen. Su koxkor bat in, dde, ibiltzeko gauze izan ezker, saltatu. Zaharrak eta ezinez zienak baztartxeotik, sue bajo-bajoa zegoala, eta gaztegoak erditik edo. Eta haur ttikik zittuenak e haikin baten saltatu. Hiru salto horik in, BIBA SAN JUAN BEZPERA, SARNA FUERA esan, eta aurea. Guk gaña San Joan bezperako su hori ittekoan gurutzek eta belar-onak erre itten giñizen, zaharrak. Eta sue bera re bedeikatu itten huen. Ta uaindiken e seitzen diu guk hori itten. Ni enak saltatzen ezin duelako, baño beste guzik bai, lehen bezelaxe, atarin sue indde.

Horretaz gain, beste ohittera bat ere ba omen zegoen garai batean baserri munduan San Joanetako tenoretsuan: oin hutsik ibiltzeko ohitura. Hona Maria Jesusek nola azaldu zion hiketan haren ilobari:

Aizan, hik ez don yakiñen igual, baño hor baan beste gauz bet San Joanetakoa, eun horitan itten zena: oin hutsen ibiltzeko ohittera, goizeko ihintzen. Gaben ihintze ittein udabiden. Da goizeko ihin-



Maria Jesus Sagastibeltza.

tzen oin hutsen ibiltzen baihaiz, hanaketako miñik ez don izaten. Da barizik e ez, gaña. Ordun barize asko izate huen, da medikuk eta ezta re, uain bezala. Ta diruik e ez, medikuk izanda re. Ta barizik ez izateko oin hutsen ibiltze huen yendea. Ta bazen, ez bazen, ongi seitzen ziñenen aurea. Uain berriz medikuk eta dena behar izaten diñea, ta halare ez sendatzen!

SAN JOAN LOREAK EDO BELARONAK, TURMOBEKA HASTEN ZUENERAKO EDO ERETA TOKATUZ GERO

Baserrietan ongi sustraituriko ohitura omen zen atal honetan jorratu duguna. Eta bizitutakoek berek kontatzea iruditu zaigu egokiena, guztion jakinduria hornitzen laguntzeko. Gainera, haien kontatzeko era oso aberasgarria da. Hona Maria Jesusek nola azaldu zuen San Joan loreen kontua:

Aizan, aizan. Denbo baten, San Joanetan, San Joan belarrak esaten zitziñenen. Itten giñizenen sortak lore klase guzikin. Mendin izaten dien lorekin, ta paxoa osatu eozin lore hartute (intsuse, margarita, pitxi-lorek, paretakoa, arrosak...), ta hori ematten giñenen bedekatzek. Ta gero bedeketute ekarri, tte sekatzzen patu. Ta ongi sekatzzen zienen, eta, turmobeke ta tximisteka ta, ereta soñuk hasten zienen, puskeat kendu hari tte, suei eman. Lurreko suek hittuen

ordun. Ta suei bota. "San Joan, San Joan, bedekatu zazo gue etxea. Ta yasa txarratatik e libratu gaitzezo." Ta suei botatzen giñezkionen. Da hantxe, kuzkur demonio. Etxe guztian itten huen. Generalen emakomek biltzen tzetien horik. Eta etxe ondoan, Barunen, bahuen arrosa bat. Ta beti arrosa hartatik ekartzen tziñenen gue amak sorta bat bedekatzek. Ta ganbaran txintxilak patu, ta hurrengo San Joanak allatzen bazien, suen erre. Aaa, ta hik ez don yakiñen, segurona, ereta zen den. Baño guk ikasi giñenen. Gurasoak erakutsi zeñunen. Turmobeke fuerte hasten dunen, hurrengo ereta izaten. Hizketan ai bailitz bezala: bubububrubrubrubrubru. Ta harrie izaten ondoren seittun. Da amak San Joan belarrak gordek han eukitzen tzetien ganbaran. Yoan eta puskeat kendu, te suei sartzen tzeñonen. Ta, bazen ez bazen, salbatzen giñuzenen, 20etatiken 19tten.

Orain Migeli pasako diogu txanda. Hark honelaxe azaldu digu kontu hori bera:

Emakomek biltzen tzetien belar eta lore horik normalen: gue amona zenak eta ama zenak, eta azkenen andre zenak e bai. Hoik denak bata bestei eakutsi zeioan. Da amona zena gauze ez zela geldittu zenen, amak itten tzetien. Eta hure gauze etzela geldittu zenen, nere andre. Eta hure hola geldittu zenen, ba, neskatok biltzen zetie.

Biltzen tzetien arto-ondotxo bat eta, banabar-ondotxo bat e bai, tte gero lizar-osto pixkoat e bai, tte gaztain osto batzukin e bai, tte sagar osto bat e bai. In hola mordoxkatxo bat. Paxoa. Aaa, eta lore batzuk e bai. Lorek e biltzen tzetien, zuiñek lore politte izaten zien. Eta margaritak eta. Hala, horik bilddu, ta, in paketetxo bat, eta bedekatzea eaman, San Joan bezperan. Eta gero haik altxatu. Lehengo urteko zaharrak erre San Juan bezperako suen, eta berrik altxatu. Lehortzen patu, te ondoren gorde urte guzireko. Ta erramuk e bai, erramu bedekatuk erretzen hittuen. Da hoik holaxe itten giñizen, nik gogoan dittuen gauzek horik dittok. Hairi guk belar-onak esaten giñeioan, eta gue atte zenak-eta tormobek eta zalaparta zenek, kanpoa atea ta: “Ño, ereta bada, belar-onak eta erramue ta erre behar die. Eta hori esaten tzeiguen guri, tte gu harritute: Ze, ze? Eta hark: “bai bai, erre in behar die, hoik hortako izaten dittok eta. Erauntsi txarra bada: Ixo, ereta dok. Badok soñue. Bedea nola itten dun soñue. Aaa, tarrrrrrrrra, ta han tormobea ta tximiste ta, tarrrrrrrrra. Hori ereta dok. Hala, belar pixko batzuk erre eta erramue erre ta.... Hoixe huen gure usadioa. Uda aldeko harri-erauntsin defentsa huen belar-onak erretzea. Banabarrak eta artoak eta saarrak eta ez izorratzeko.

- ereta: trumoi soinu handiko ekaitza.
- erauntsia: jasa handia.
- bedea: begira.
- arto-ondotxo: artoaren landaretxoa.
- banabar-ondotxo: banabarraren landaretxoa.



Miel Sukuntza.

SAN JOANETAKO GURUTZEAK

Barunen, gainerako baserrietan bezalatsu, gurutzeak egiteko ohitura ere bazen. Begira:

Aizan, San Joanetako gurutzea zer den hik bai al dakin? Guk ttikik giñela ikasi giñenen. Da itten e bai, ikasi giñenen. Eukutsi zeinuen gurasoak. Eta hortxe ibiltzen giñuzenen, da uain e hortxe ibiltzen gatton. Aurten e nik neonek ekarri diñet elorrie gurutzek itteko. Ta San Joan goizen alabak laundu zeidenen. Da, ur bedekatue plater baten patu. Busti han erramue. Hiru aldiz aitarena in elorriri. Eta erramue sartu tarteka hartan. Da gurutze iñe. Ta atetan beti patzen den tokin, zaharra kendu eta hue patu.

Etxea babesteko, tximisteik eta ez sartzeko izate itton horik. Beste batzuk nola patzen dittuela eguzkilorek edo kontrapozobek? Ba gauze bera gurutze-na re.

Eta atal honekin amaitzeko, hona Mielek nola azaldu digun usadio hori:

Ekartzen giñezkioan elorri zotzak eta erramue atei, ta attek itten tzetien gurutzek. Hure ittetik geldittu zenek, ni

hasi nindduen, eta, urte salle galant hontan, nik itten tzetit. 1990. urtetik eo neonek in tzetit. Lehenao elorrikin aitzen giñena, hure eskutako txarra, atzapar guzik izorratzen giñetien, eta gero lizarra zela osto gurutzen izaten zuna, eta uain lizarra kin itten tzetit.

Labanan muturre sartu, te punttekin iriki te xeharkatu hola, ta tartea gelditzek, eta ordun beste elorri puxke at eta erramun-ostoa, tarte hortan sartu, te labana ateatzen denek tarte hartatik, seuratzen dok, eta listo. Itxie gelditzek, gurutze iñe.

Aurreko urtekoak erre, gurutze zaharrak, San Joan bezperako suen, eta gero indeko berrik patu zaharran tokitan San Joan eunen: Ganbarako zubin, eta behiko ateetan e bai, tte gero ukulluko aten e bai. Tte norten han beste ate bat badok, eta han estalpeko aten e bai, tte hemen etxen 6 gurutze haundi samarrak. Eta beste ttikixegoak berriz atekatan eta patzeko, atekatan patu eta bakoitze, yendea ibili behar dun tokin edo. Usadioa horixe dok. Illuntzen atte zenak hantxe bialtzen giñeuden gu. Eta hantxe patzen giñetien, batzuk han eta bestek hemen eta.

Udako solstizioa dela eta ez dela, gure herrian oraindano zein usadio izan ditugun ikasteko egokiera ezin hobea izan dugu. Aurrerantzean ez dakigu horiei eutsiko zaien edo ez. Baina ezagutu, behinik behin, ezagutu beharrekoak direla iruditzen zaigu. Geure herria eta nortasuna hobeki ezagutzeko baliagarriak dira, gure irudituan. Espero dezagun zuretzat ere interesgarria izatea baserrietako jendearen laguntzaz osatutako lan hau.



Garbigunera bisita.

Jubiloteka txokotik

Badira urte batzuk Jubiloteka gure herrietan eskaintzen dela; Areson, Goizuetan, Aranon eta, nola ez, Leitzan. Lau herri hauetan izaten da 65 urtetik gorako interesatuak dauden herritarrentzat eta Gizarte Zerbitzua da eskaintza horren arduraduna.

Jubilotekaren helburu nagusiak adineko jendeari ariketa fisikoa, kognitiboa, eta lagun arteko aisialdirako tarte eskaintzea lirateke, besteak beste.

Horregatik elkartzen gara astelehenero Udaletxeko 1. solairuko aretoan 10:00etatik 13:00etara. Eta orain, ostegun arratsaldetan ere aukera daukagu

bigarren saio ireki bat izateko, momentu politak elkarbanatu eta lagun artean biltzeko.


Denbora pasa desberdinak; burua argi edukitzeko jolasak; gorputzaren oreka, indarra eta koordinazioa bilatzen dituzten ariketa; eskulan eta tailer desberdinak... prestatzen saiatzen gara. Lan horiez gain, ekintza ezberdinak ere egin izan ditugu, esaterako, eskola umeekin batera antzerki bat ikustera joan, artista desberdinekin tailerrak, kaxa zaharrei itxura aldatzeko eskulanak, paper birziklatuzko saskiak, paperezko loreak, puntua... Atera izan

gara herrira bueltaxka bat ematera, zerbait elkarrekin gosaltzera... eta beti-beti irriparra izan dugu lagun. Giro polita daukagu eta jende gehiago etorriko balitz ere, horrelaxe izaten jarraituko luke!

Beraz, memoria eta burua landu, gorputza aktibo eduki, eta asteari pusketa bat kenduz lagun artera bildu nahi duen guztia animatu nahi dugu Jubilotekara. Horretarako, Gizarte Zerbitzura deitu edo gerturatu, eta informazioa eskatu besterik ez da egin behar. Eta gure saioetara etorri, noski, ongi pasatzeko gogoz!



Gizarte Zerbitzurako tapizatu zituzten aulkiak erakutsiz.



Josten.



Gizarte Zerbitzuko harrerako aulkiak tapizatzen.



Paper birziklatuarekin egindako saskitxoak sortzen.




Paper birziklatuarekin sortutako saskia erakusten.



Memoria lantzeko jolasean.



Mandalak.



Mandalekin apaindutako kaxak.



Memoria jokia inauterietako irudiekin.



Kaxa zaharrei itxura aldatzen, kafesne bat hartuz...

Peru Harrin, Nekane
Piñuelak zuzendutako
azkeneko kontzertua,
2023.

Amaia Iparragirrek
utzitako argazkia.



Jeiki abesbatzak

50 urte

Kantatzeko ilusioa eta grina bizi-bizirik

mende erdia bete du Leitzako Jeiki abesbatzak. 1974an sortu zen, Florencio Irurtia *Pontxitoren* eskutik. Hasiera hartan berrogeita bost ahotsek osatzen zuten taldea eta tartean zen Joxe Mari Azpiroz, abesbatzako kidea hasiera-hasieratik, eta gaur egungo Jeikiko lehendakaria. «Ilusioa eta konpromisoa» dira abesbatzaren hasierako urteei buruz hitz egiterakoan gehien aipatu dituen hitzak: «musika zaleak ginen denak, baina inolako musika ikasketak gabeak. Ilusio handia genuen, lanerako gogo eta orduak eskainita, maila oso altuan ibili ginen hasieratik».

HASIERAKO URTEAK

Lehenbiziko hamar urteak, «oso biziak» izan zirela azaldu du Azpirozek. Hainbat lehiaketetan parte hartu zuten «*Pontxitok* uste zuelako horrek abesbatzari hazteko aukera ematen ziola». Sariak ere eskuratu zituzten: «1979an Ejea de los Caballerosen egindako abesbatzen lehiaketa irabazi genuen. 1979an eta 1981ean Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte hartu zuten, 79an polifoniako laugarren postuan sailkatuz eta 81ean sari berezia lortuz. Urte hartan bertan, 1981ean Arezzon (Italian) abestu genuen eta 1983an Llangollenen (Ga-

lesen) ospatutako abesbatzen lehiaketan polifoniako bigarren saria irabazi genuen». Oroitzapen zoragarriak dituzte bidaia haien inguruan, koadrila ederra joaten baitzen: abesbatzako kideez gain, haien bikoteak edo familiartekoak ere biltzen ziren. Eta oso giro ona sortzen zen.

Ez ziren lehiaketetan bakarrik ibili, jakina, hainbat eta hainbat kontzertu ere eskaini zituzten: «Iruñeko Gayarre antzokian hiru aldiz abestu genuen eta 1982an Loiolako Basilikan Rossiniren *Petite Messe Solennelle* obra eskaini genuen Javier Bello Portuk zuzenduta».

Zuzendari entzutetsua zen hura, eta harekin abestea sekulako ohore izan bazen ere, lan handia eskatu zien Rossiniren mezak, besteak beste, obra zaila zelako. Ikasteko prozesua ongi gogoan dute abesbatzako kideek: «*Pontxitok* kasetetan banaka grabatu zituen ahotsak eta hilabete eta erdian lortu genuen ikas-tea. Erabat horretan arituta, alegia, entsaiatzen, distraitzeko betarik gabe. Pentsa, egun haietan 1982ko Munduko Futbol Txapelketa zen eta abesbatzan ginen futbolzaleok ez genuen partida bakar bat ere ikusi!»

HARTU BEHARREKO ERABAKIA

Esfortzu eta dedikazio handia eskatzen zuen Jeikik zeraman martxa hark, eta erritmoa jaistea erabaki zuten. 1983. urtea inflexio puntua izan zen: «maila horretan segitzea ezinezkoa zela ikusi genuen. Exijentzi maila oso handia zen eta zertxobait lasaitzea erabaki genuen». Hori bai, kantatzeari uztea ez zuten behin ere burutan izan: «herriko elizkizunetan, ezkontzetan, hiletetan... abesten genuen. Ez ginen kanpora ateratzen, baina horrela eutsi genion abesbatzari».

Beste modu batera egin zuten aurre-ra, entsegu ordu, bidaia ordu eta emanaldi ordu gutxiagorekin, eta bizirautea lortu zuten, kantatzeko grina eta ilusioaren sua erabat itzali gabe. Handik urte batzuetara, 2004an, proiektua berarratu eta bultzada eman zioten Jeikiri: «ordu hasi ginen berriz ere buru-belarri lanean». Haendl, Bach, Schubert, Mozart... konpositore ezagunen obrak landu zituzten «eta 2008an Mozarten Requiema lehenbizikoz Leitzaan abestu genueneko oso berezia izan zen guretzat».

Paraje berezietan abesteko aukera ere izan dute etapa berrian: Leitzaarrean, Itzaletan, Chillida Lekun eta 2012an Zugarramurdiko lezeetan eman zute *Pontxitok* zuzendutako azkeneko kontzertua.



Arezzo. Pontxito Irurtia zuzentzen. 1981.



Llangollen, 1983.

Jeikik izandako 3 zuzendariak:

- FLORENCIO IRURTIA
PONTXITO (1974-2012)
- NEKANE PIÑUELA (2012-2023)
- VINAIXA GARTZIA (2023-)

ZUZENDARIAK

Jeikik 3 zuzendari izan ditu 50 urteko ibilbidean, eta modu batera edo bestera, bakoitzak bere ekarpena egin dio abesbatzari. **Pontxito Irurtiak** jarri zuen proiektua martxan. Kideen esanetan «ezin liteke Jeikiren historia azaldu, Pontxitok abesbatzaren alde egindako lan guztia azpimarratu gabe». Hogeita hemezortzi urtez bera izan zen Jeikiko zuzendaria.

Nekane Piñuelak hartu zuen ondoren

abesbatza zuzentzeko ardura. 2012an hasi eta 2023ra arte ibili zen batuta hartuta. Zuzendari berri bat iristen denean, abesbatza bat guztiz alda daitekeela uste duen arren, «Jeikik bere esentzia beti mantendu» izan duela dio Azpirozek, «baina eboluzio bat egon zela esan daiteke. Ordura arte, batez ere, Errenazimenduko obrak abesten genituen. Hasiak ginen Mikel Laboa, Lete, Lertxundiren abestiak ere lantzen, baina Nekanerekin garai berrietara egokitu genuen gure erreperitorioa». Hala ikasi zituzten: «*Lau tei-latu, Itsasoa gara...* baita teknika berriak ere. Euria ari duenaren soinua egin dugu kanturen batean, beste batean dantzatu...». Batekin zein bestearekin hizkuntza



Erroma, 1981.



Vinaixa Gartzia zuzendari berriarekin.

ez da inoiz muga izan: «latinez ziren hasierako obra gehienak. Gero euskaraz, errusieraz, ingelesez, alemanieraz, italiaraz... abestu izan dugu. Nola esan behar den ondoan idatzi eta moldatzen gara».

2023ko urrian zuzendu zuen azkeneko kontzertua Nekane Piñuelak. **Vinaixa Gartzia** hernaniarrak hartu du orain lekukoa: «Peru Harrin egin genuen kon-

tzertua ikustera gonbidatu genuen, proposamen bat egin eta segituan eman zigun baiezkoa». Joan den urteko azaro hasieran egin zuten lehendabiziko entsegua elkarrekin eta lanean ari dira geroritik. Oso batua dagoen koru batekin topo egin zuela nabarmendu du Vinaixak: « Nabari da proiektuarekin segitzeko ilusioa dutela».

Ilusio hitza agertu da berriz ere, 1974an, Jeikiren sorreran zuten ilusio hura bera edo garai berrietara egokitutakoa, edonola ere, abesten jarraitzeko ilusioa. Urteen joan etorrian, zuzendariak bezalaxe, abeslariak ere aldatuz joan dira, batzuk atera eta berriak sartu dira. Gaur egun 44 kide dira, hasiera hartako 45 kideko taldearen paretsu.

URTEURRENA

Eta ibilian ibilian, 50 urte pasatu dira, eta Jeikik urteurren hau behar bezala ospatzeko ekitaldi berezi bezain ederrak eskaintzea erabaki zuen, halabeharrez musikari lotutako ekitaldiak. Hala, 4 emanaldi bikain antolatu zituzten 2024an zehar emateko.

Eskertza urtea ere izan da, nolabait esateko. Alde batetik, urte guzti hauetan Jeikiren kontzertuak ikustera joan diren herritar guztiak eskertu nahi lituzkete, jende asko arrimatu baita nonahi eman-dako emanaldietara: plazara, elizara, zine zaharrera, Herri Areto berritura, Leitzatik kanpoko antzokietara, lehiaketetara, monastegira...

Bestalde, abesbatzako parte izan diren koru-kide guztiak ere gogoan hartu eta eskertu nahi izan dituzte: hasierako urteetan ibilitakoak, ondorengo urteetan aritutakoak zein gaur egun dabiltzanak. Guztientzat izan da urteurren ospakizuna, guztiek osatu baitute Jeiki hasieratik gaur arte. Eta 50. urteurrena bukatzeko, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, kontzertu berezia eskaini zuten: urte hauetan denetan koruan ibilitakoak bildu ziren, eta ondoren bazkatzera joan ziren ia 80 lagun, oraingo eta lehengo koru-kideak denak elkarrekin, oroitzapenak gogoratuz.

Izan ere, abesbatza bat ez baita ohol-tzara atera eta kantatzea soilik, hori baino askoz gehiago da. Ordu asko, anekdota asko... bizipen asko. Batzuentzat, Jeiki sortu zenetik hor dabiltzanentzat esaterako, bizitza oso bati lotutako bizipenak dira.



Zaintzari buruzko hausnarketa

Leitzako Udalak zaintzaren inguruan lanketa egiteko momentua zela esan genuen legealdi hasieran.

Honela, argi dugu pertsona erdigunean hartu eta jarriko duen zaintza ekosistema osatu nahi dugula. Ekosistema honek publiko-pribatu eta komunitarioa izan behar du, gure ustez ezinbestean.

Udalak argi du herritarrekin egin beharreko bide bat dela. Azken batean, sentsibiltate eta egoera desberdinetan dauden herritarrek baitakite zein den benetako egoera eta zein behar dauden, denon artean aurrera pausuak ematen hasteko.

Lehenengo urratsa honen guztiaren inguruko lanketarekin hastea zen. Zaintzaren inguruan hausnartzen hastekoa alegia. Zer da zaintza? Nola zainduak izan nahi dugu? Nola zaintzen dugu edota nola zaintzen gaituzte? Zein gabezi dugu herrian? Eta zein indargune?...

Honetarako Matia Fundazioarekin lanketa bat egitea egokia zela iruditu zitzaigun. Azken batean, pertsona erdigunean jartzen duen zaintzaz esperientzia eta eskarmentu handia duen Fundazio bat baita. Eguneko zentroa, egoitzak,

errehabilitazio zentroak, babespeko apartamentuak, unitate soziosanitarioak...

Bigarren pausua parte hartze prozesu hau antolatzeke zein bidelagun izango genituen argitzea zen. Honetarako, lantalde bat osatzeari ekin genion. Lantalde hau arlo desberdinetako herritarrez osatu genuen. Zaintzaren, beharren eta indarguneen inguruan ahalik eta argazki zehatzena izaten lagunduko ziguten herritarrek gonbidatu genituen bertara (erizainak, gizarte zerbitzuetaiko langileak, etxeko etxeko langileak, zaintza jasotzen duten herritarrek, zaintza ez profesionala ematen dutenak, zaintza emozionala eskaintzen dutenak, zaintza beharrak dituzten familiak, herriko eragileak, zaintza elkarteak). *Talde motorra* deitu diogu mahai honi. Eta beste bi bilera egin ditugu zaintza mahaia deitu diogun lantalde zabalagoari. Bertan talde motorreko herritarrez gain, herritar orori irekia egon den bilera izan da. Erabaki gunea izaki.

Otsailean egin genuen parte hartzearen lehenengo bilera. Hilean behin egin izan ditugu lan saioak. Bertan gai des-

berdinak landuz eta hausnartuz: zerbitzuez, zaintza pasiboez (herri irisgarria ote garen), herri zaintzailea ote garen....

Urrats hau eman ondoren, gure hausnarketa herritarrekin osatzea eta herritarrei zabaltzea zen ondorengoa. Guretzat oso garrantzitsua baita denon iritzia jasotzea eta horren arabera pausuak zehaztea. Argi izanik bide luzea dela egin beharrekoa eta hasieran gaudela. Denon artean egin beharrekoa delako.

Orain gutxi galdetegi bat jaso dugu gure etxeetan. Norberaren hausnarketa eta ikuspegia jakin nahi baitugu. Ezinbestekoa baita denon elkarlana eta ardura zaintzen arloan aurrera egiteko.

Parte-hartze prozesuan egindako ibilbidea eta galdetegiaren berri izateko URTARRILAREN 18an, larunbata, HERRI ARETOAN honen guztiaren plazaratzea egin nahi dugu. ZAINZTA HERRI ARETORA! Zaintzaren inguruko parte-hartze prozesuaren hausnarketak, emaitzak, ekimenak eta etorkizuna lelopean.

Bidea egiten hasi gara eta denok dugu zer esana eta ardura Leitzako herri zainzaile egokia izateko!

Zein die Leitzeko zure hitz gustokonak?

ANPOLAIE

BIÑIPIN

TORMOBEA

PINPINHARRIE

MATSARDEA

IRAULKE

KIRRINKILLOAN

LITXE

ZIRRIKITTUE

ABALLEN

BEDEA

HANKA
LEPOTAN

INTZURE

TXERO-
TXERO

MORKOA

BUXIK

KOLLE ZINTZARRIE

KAPUSAIE

Leitzako TXIMUTXE euskara taldeak egitasmo bat jarri zuen martxan Euskararen Nazioarteko Egunaren harira: Leitzeko hitzak biltzea.

Hitzak, esamoldeak, baita toponimoak ere (leku-izenak) izan daitezke... norberaren gustukoak diren horiek eskatu dituzte, ahalik eta gehien biltzeko asmoz. Horretarako hainbat bide jarri zituzten herritarren eskura:

- Egun pare batean herrian mahaiak jarri zituzten (azaroaren 29an eta abenduaren 3an izan zen hori).
- Herriko 3 ikastetxeetara kaxak eramane zituzten familiek ere bilketa honetan parte har zezaten.
- Online bidez idazteko aukera ere eskaini dute, honako loturan sartu eta hitza idazteko: <https://lc.cx/11sgaD>

Momentuz proposamen asko jasotzen direnez, galbahea pasa, eta aukeraketa egin beharko dutela adierazi dute euskara taldek. Edonola ere, herritik bildutakoa herriari eskainiko diote. Udaberri aldera argituko dute, ordea, zertarako erabiliko dituzten Leitzeko hitzak.

Goian dituzue orain arte bildutako adibide batzuk. Zuek ere hitz gehiago baldin badituzue bidali lasai online bidez!